

Kritikak ere laguntzen du baina,

Hirugarren geltokira helduta, baliteke darabilgun alorrean diren beharrizanei erreparatu beharrean edo egotea. Eta ezerk esangurak, esanbeharrak eta esatekoak sortzen baditu, hizkuntza da. Hizkuntza dugu eztabaidagai dagozkion eta ezarri zaizkion esparru guztietan behin eta berriro.

Geurea dugun hizkuntzaren inguruan ere ugariak dira estabaida alorrak, baina hemen ez diegu irakaskuntzarekin lotura zuzena dutenei baino helduko: Hizkuntza, Hizkuntzaren Erabilera, Hizkuntza Irakastea/Ikastea, Irakurtzen eta Idazten Irakastea/Ikastea, Irakasleen eta Irakasleak Hizkuntzak Erakusten Dituen Berezitasunak, Hizkuntzaren kalitatea eta abarrekoak.

Euskara edo euskaraz irakazten duen irakasleak gai ororen inguruan entzun eta irakurri izan ditu balorazioak eta kritikak emaitzei buruz. Aspaldion gehien bat Erabilerari eta Hizkuntzaren Kalitateari zuzendu zaizkienak izan dira eta honen aurrean irakasleak ezer gutxi egin lezake, aurretiaz zenbait baldintza betetzen ez badira. Gaiak definituta egon behar du, eragileak ikusita, helburuak zehaztuta eta lanerako erantzukizundunak aipatuta. Eta honetarako ikertu egin behar da, baina hizkuntzak berez bizi duen egoera bereziagatik geure lanean beharrezkoen dituen alorretan.

Irakaskuntzan dabilzanek ez daukate milagrorik egiterik. Ebaluazioarekin batera, ez letorke txarto informazioa.

Ander Olalde Bustinza